

GEREDIAGA ELKARTEAREN ESTATUTUAK

SARRERA

Gaur egun Durangaldeko eskualdea bezala ezagutzen dugunak, gutxienez, Erdi Aroan dauka jatorria. Izan ere, lehenengo dokumentuak XI. mende erdialdekoak dira. Berezko ezagurriak zituen Durangoko Lurra aipatzen dute, momentu hartan Bizkaia zenetik bereizita.

Badakigu Bizkaia eta Durango Iruñeako egitura politikoetan txertatu zirela XI. mendearen bigarren erdialdean, eta Durangoko Lurra Iruñeako monarkiarekiko lotura, gora-beherak barne, 1200. urteko Gaztelako konkista gertatu arte luzatu zuela. Beranduago, 1212an, Alfonso VIII. Gaztelako erregeak, Durangaldea Diego Lopez de Haro II-ari, Bizkaiko Jauna eta bere basailoa zenari eman zion. Baina, bere izaera eta berezko erakundeak mantendu eta mendeetan gobernatzeko modu bereziari eutsi zion. 1379. urtetik, Bizkaiko Jauna Gaztelako Erregea izan zen.

Eskualdeko erakundea landa izaera zuten 12 elizatek osatzen zuten, "Lur Laua" deitutakoa: Abadiño, Berriz, Etxebarriako San Agustín, Mallabia, Mañaria, Iurreta, Garai, Zaldibar, Arrazola, Axpe, Apatamonasterio eta Izurtzak. Lurraldeko lau hiribilduak geratu ziren kanpoan: (Otxandio, Durango, Ermua eta Elorrio. Laurak XIII. eta XIV. mendeetan eratu ziren, Hiri-Gutuna Erregeak edo Jaunak eman zien, eta horrek berezko erakunde eta antolakuntza izatea esan nahi zuen. Hiribilduetan ez zen lurraren ohiturazko zuzenbidea aplikatzen, errege-zuzenbidea baizik. Hirigune berriek, landa-udalerrietatik fisikoki bereizten ziren; planifikatutako hirigintza eredua zuten, eta gehienetan, harresiak ere bai. Lur Laua eta hiribilduen arteko gatazkak sarritan izaten ziren, batez ere eskumenei buruzko gaietan. Hala ere, akordio orokor bat behar zenetan, esaterako bideen trazadurari buruz, elizateak eta hiribilduak erabakia adosteko elkartzen ziren.

Aro Mordenoan garatu zen Durangaldea erakunde politiko-administratibo modura, Merindade modura. Egia da, Bizkaiko egungo lurraldean beste merindade batzuk ere izan zirela, baina Durangoko Merindadeak zaindu eta mantendu egin du bere nortasuna eta bere berezitasuna indartu.

Durangoko Merindadearen antolakuntza politiko-administratiboan zutabeetako bat Merindade Batzarra izan zen, XVI. mende hasieran definitu eta onartu zena. Hasieran, batzar hauek jendetsuak izan baziren ere, Erdi Aroaren amaieran eta Aro Modernoaren hasieran ordezkarien batzarrek bihurtu ziren; hau da, udalerrri bakoitzak ordezkari bat izaten zuen. Normalean, egungo alkateen pareko ziren Errejidore Fidelek hartzen zuten parte.


Interesgarria da batzartzeko lekuak zeintzuk ziren, eta zertarako erabiltzen zen bakoitza aipatzea. Izan ere, gaur egun leku horiek existitzen dira, nahiz eta denboran aldaketak izan dituzten. Euren gaur egungo balio sinbolikoa historian zehar izan duten egitekoak eman die. Horietako leku garrantzitsu bat Gerediaga zen, Merindadeko batzarrek egiten ziren lekua. Leku horretan zegoen gaur egun desagertuta dagoen erritu-arbola (haritza). Bere itzalpean batzen ziren elizateetako ordezkariak. Eta zin egiteko tenplua ere bertan zegoen, San Salvador eta San Clemente izenekin. Bertan egiten ziren ez-ohiko batzarrek eta esangura handiko ekitaldi sinbolikoak, adibidez, Foruak gordetzeko zin-egite ekitaldiak, eta Jaunak lurraldearekiko zuen boterea ere bertan aitortzen zitzaion. Gerediaga ermita inguruaren balio sinbolikoa, gaur egun ere, agerikoa da.

Merindadeko Batzarren beste leku esanguratsu bat, egunerokoaren kudeaketarekin lotuta, Astolako Zubaurre etxea da; gutxienez, XVI. mendetik aurrera erabiltzen dena. Arinago, batzarretarako egoitza Durango hiribilduko Kurutzia errabalean zegoen, eta gatazka askoren sorburu izan zen. Astolan egiten ziren bileretan



Nahi izanez gero, J0D0Z-T34TC-D1TX bilagailua erabiltuta, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T34TC-D1TX en la sede electrónica <https://euskadi.eus/localizador>



oinarrizko gaiak eztabaidatzen ziren, Jaurerriarekiko harremanak, hiribilduekiko gatazketan Lur Lauko elizateen defentsari buruzkoak, auzotzeko baimenak, artxibo publikoaren zaintza eta zerga banaketak. Berez, ohiko batzarrek bertan izaten ziren; bertan bizi zen Teniente Korrejidorea, eta bertan zegoen Merindadeko kartzela.

Merindadeko batzarretara Teniente Korrejidorea ere joaten zen, Bizkaiko Korrejidoreak (erregearen ordezkaria) izendatuta. Bera zen justizia arduradun nagusia, eta beste bi ofizial ere bazeuden: Teniente Prestamerao eta Teniente Ibar-jauna.

Barruko funtzionamenduaz gain, Merindadeak Bizkaiko Jaurreriaren gobernuan ere parte hartu nahi izan zuen, Gernikako Batzarrean. 1628an, bi botu egokitu zitzaizkion, nahiz eta hamaikarako eskaria egin. 1740an bost ordezkari izan zituen eta 1800. urtean zortzi.

1875eko abenduaren 27an Merindadeko azken batzarra egin zen, eta urte bat beranduago, 1876an, III. Gerra Karlistaren ondorioz, foruak deuseztatu egin ziren, eta beraz, Durango Merindadeko Foru Zaharra, mendeetan lurraldearen ohiturak biltzen zituen legezko testuak ere indarrean egoteari utzi zion. Erakundeen berdefinizioak eragin zuen aldaketa.

1970ean Durangoko Merindadearen Mankomunitatearen sorrerak, moduren baten, aipatutako historiari jarraipena ematen dio.

Durungaldeak izandako amankomuneko iraganak eman dio zentzua eta oinarria Gerediaga Elkarteari. Bere helburua baita Durungaldearen izaera berezia sendotu eta sustatzea, merindadearen historia eta oinordekoek utzitako ondarearen ezagutza zabalduz. Betiere, egungo egoerara egokituta.

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1.- artikulua.- 1966ko ekainaren 1ean AS.R.P.B.00096 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako GEREDIAGA (Durungaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea) ELKARTEAREN estatutu hauek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritz.

Elkartea arau hauen menpe egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).



ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.-Hona elkarte honen **HELBURUAK**:

1. Durangaldeko, hau da, Durangoko Merinalde zaharraren izaera, historia eta kultur ondarea aztertu, zaindu eta ezagutzera eman.
2. Kultur ondare hori testuinguru historikoan kokatu eta dagokion balioa eman.
3. Eskualde identitatea indartu.
4. Euskal kulturgintzaren topagune eta bozgorailua izan.

Helburu horiek lortzeko, **JARDUERA HAUEK** egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- Erakusketak, jardunaldiak, argitalpenak, biltzarrak, ikus-entzunezkoak, hitzaldiak,... antolatu, bultzatu eta ezagutarazi.
- Ikerketa lanak sustatu edo bideratu eskura dauden baliabideen bidez.
- Arriskuan dagoen kultur ondarearen begiraletzan jardun, erakundeekin elkar lana bideratuz.
- Durangaldeko dokumentu historikoen gordailu lana egin eta ezagutzera eman.
- Eskualdea eta eskualdetasuna indartzen duten ekimenak sustatu eta eragilean arteko zubi lanak egin.
- Durangoko Azoka antolatu.


Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako ekintzak eta kontratuak egin.
- Edonolako ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.- Elkarte honen egoitza nagusia Abadiñoko Astolako Zubiaurre etxean, antzinako Merinaldearen Auzitegian, egongo da. Bigarren egoitza Larrasoloeta 3, 48200 Durangon izango du.

Elkarteak beste egoitza batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Nagusiak horrela erabakitzen badu.



LURRALDE EREMUA

4. artikulua.- Elkarre honen ekintzak Durngaldean, hau da, Durangoko Merinalde zaharreko Elizate eta Uriak osotzen zituzten Udalerrietan gauzatuko dira nagusiki: Abadiño, Berriz, Mallabia, Iurreta, Mañaria, Garai, Zaldibar, Atxondo, Izurtza, Durango, Elorrio, Ermua, eta Otxandion.

Hala ere Euskal kulturgintzari dagokionez, elkarrearen ekintzen eremua Euskal Herri osora edo hemendik kanpo zabaldu daiteke noizbehinka, Durangoko Azokaren eraginak horrela eskatuz gero, egitasmo horren osagarri moduan.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Gerediaga Elkarrea iraunkorra izateko eratu da, eta VI. kapituluaren esaten den bezala ez-ohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkarrearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN ATALA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkarrearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:
- Bazkideen Batzar Nagusia izango da organo gorena.
 - Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR NAGUSIA

7. artikulua.- **AHALMENAK** Batzar Nagusia bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Hona Batzar Nagusiaren ahalmenak:

- a. Elkarrearen jardura-plan orokorra onartzea.
- b. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d. Estatutuak aldatzea.
- e. Elkarrea desegitea.
- f. Elkarreko presidentea, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g. Beste elkarre batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik



ateratzea.

- h. Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i. Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j. Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-
organoari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k. Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l. Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Nagusiak ohiko bilkurak eta ez-ohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.- **BILEREN MAIZTASUNA**: Batzar Nagusiak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- **EZ-OHIKO BILKURA**: Batzar Nagusia ez-ohiko bilkuran elkartuko da Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean, bere ekimenez edota bazkideen %25ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolanahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:


- a. Estatutuak aldatzeko.
- b. Elkartea desagiteko.

11. artikulua.- **DEIALDIA**: Batzar Nagusia biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez 15 egun natural pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adierazi daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarte utzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ez-ohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- **BOZKETA**: Batzar Nagusiaren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuak baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Dena den, bertaratutakoen edo ordezkatuak gehiengo osoa beharko da (erdia + 1), honako erabaki hauek hartzeko:

- a. Estatutuak aldatzea.
- b. Ondasunak erabili edo besterentzea.
- c. Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.



Elkartea desagiterako orduan oster, gehiengo kualifikatua beharko da, bertaratutakoen 2/3na hain zuzen.

13. artikulua.- **ORDEZKOTZA** Bazkideek edozein bazkideren esku utzi dezakete beren ordezkari Batzar Nagusian parte hartzeko. Ordezkaritza hori emateko baimena idatziz egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik eduki beharko du. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkari bat beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezake.

Bozka postaz zein telematikoki egin daiteke baldin eta berme guztiak betetzen badira; boto sekretua eta bakarra.

Bazkide bakoitzak bi bazkide ordezkatu ahal izango ditu, gehienez ere.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- **OSAKETA** Zuzendaritza Batzordea da Batzar Nagusiaren xedapen eta zuzentarauei jarraituz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira:

- ☐ Presidentetza
- ☐ Idazkaritza
- ☐ Diruzaintza
- ☐ Batzorkideak - Gehienez: 7

Gehienez 10 kidek osatuko dute Zuzendaritza Batzordea
Diruzaintza-eginkizuna elkarteko idazkaritzak bete dezake.

15. artikulua.- **HUTS EGITEAK** Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 4 aldiz jarraian, edo, tarteka 8 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.- **HAUTAKETA** Batzar Nagusiak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko ordezkariak.


Zuzendaritza Batzordea osatzen duten pertsonak lau urteko aldirako izango dira hautatuak, eta bi urtean behin ordezkarien erdia berrituko da. Pertsona berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da; horretako, ohiko hauteskunde-prozesua abiatuko da.

Dagokien berritzea baino lehen Zuzendaritza Batzordeko partaide izateko baldintzak betetzen ez dituzten batzordekideak ordezkatu egingo dira. Hauteskunde-zerrendan boto gehien lortu duten hurrengo hautagaiek beteko dituzte postu horiek, eta Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu karguak, behin behinean, Batzar Nagusiak onetsi edo ezetsi ditzan.

17. artikulua.- **KIDE IZATEKO BALDINTZAK** Pertsona fisikoei baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kideak izateko:

- a. Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b. Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c. Erakundeko bazkidea izatea.
- d. Kargu politikorik ez izatea izendatzen den momentuan eta bere zuzendaritza ardurak dirauen bitartean. Horrela balitz zuzendaritzako kide izateari utzi beharko lioke.

18. artikulua.- **KARGU ONARPENA** Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Nagusiak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.
Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Nagusiak.



19. artikulua.- **KARGU IZTEA:** Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute honelakorik gertatuz gero:

- a. Agintaldia amaitzen denean.
- b. Dimititzen dutenean.
- c. Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d. Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Nagusiak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e. Hiltzen direnean.
- f. 4 aldiz jarraian edo 8aldiz batzordeko bileretara ez joateagatik, hutsegite horiek ez baditu arraotzen.

Baldin eta kargua uzteko arrazoa "a)" idatz-zatian agertzen dena bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo Batzar Nagusia egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Arrazoa b), c), d) e) eta f) idatz-zatietan agertzen dena bada, berriz, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Nagusiak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.


20. artikulua.- **EGINKIZUNAK** Hona Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

- a. Elkarteen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b. Elkarrekin aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c. Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Nagusiari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d. Batzar Nagusiaren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ez-ohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e. Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f. Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- g. Batzar Nagusiak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.- **BILKURAK:** Zuzendaritza Batzordearen bilkurak presidentetzak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru presidentea izango da, eta ez balego, presidenteordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Buruzagitza honek hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du biltzuran. Berdinketarik egonez gero, presidentetzaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.



ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK

LEHENDAKARITZA

22. artikulua.- Elkarteko presidentek bere gain hartuko du elkartearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako presidentea izango da.

23. artikulua.- Presidenteak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a. Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Nagusiaren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b. Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c. Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d. Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e. Batzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

PRESIDENTEORDEA (EGONEZ GERO)

24. artikulua.- Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta presidentek aldi batean bere kargua bete ezin badu, presidenteordeak ordezkatzeko du. Era berean, presidenteordeak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARITZA

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki,

- a) Elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea.
- b) Fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea.
- c) Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.
- d) Era berean, elkartearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkartearen liburuaren eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINITZA

26. artikulua.- Egindako diru-sarrerak eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Nagusiari, hark onartu ditzan.

BATZORDEKIDEAK (EGONEZ GERO)

27. artikulua.- Bokalek beren karguei datxekien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkienak ere.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

28. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- ☐ Pertsona fisikoak: Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.
- ☐ Ohorezko presidente eta bazkideak: Zuzendaritza Batzordeak ohorezko presidente eta bazkideak izendatu ditzake elkartearen alde egindako lana, zerbitzu edo merituak kontuan izanik. Hauek berretsi egingo ditu Batzar Nagusiak. Hauek ez dute inolako eskumenik izango baina Elkartek antolatutako ekitaldietan lehentasuna izango du.

29. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gora jotzeko errekurtsoa jar dakioko Batzar Nagusiari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Bazkidetutako pertsona guztiek eskubide hauek dituzte:

1. Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko berrogei eguneko epean.
2. Elkarteen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, elkarteen kontu-egoerari eta elkarteen jardueri buruzko informazioa jasotzea.
3. Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarteen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
4. Batzar Nagusietarako deiak jasotzea, Batzar Nagusietara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
5. Elkarteen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organismoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
6. Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkarteen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
7. Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
8. Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkarteen egoitza, liburutegiak, eta abar).

9. Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
10. Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

31. artikulua.- Hona bazkideen betebeharrak:

- a. Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b. Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c. Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d. Elkarteko zuzendaritza-organoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

32. artikulua.- Bazkide izaera arrazoi hauengatik galduko da:

1. Hil ezker.
2. Bazkidea bere borondatez joan ezker.
3. Honelako egoeraren bat gertatzen bada: estatutu hauetatik ondorioztatutako helburu eta betebeharrak modu larritz ez betetzea, behin eta berriz, eta nahita, edo gauza bera gertatzea Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliodunei dagokienez.

ZIGOR-ARAUAK

33. artikulua.- **ZIGOR MOTA ETA AHALMENA** Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Nagusiak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigortuak izan daitezkeen jokabideak aztertzeke ikerketa egin dadila erabaki dezake presidentek. Ikerketaren instruktorea idazkaritza izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsioa jarri ahalko zaio Batzar Nagusiari.

34. artikulua.- **ESPEDIENTE IREKIERA** Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko ekintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuetatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren,

presidenteak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, presidenteakñ jarduerak artxibatzeko agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

35. artikulua.-**PROZEDURA** Kanporatzeko zigor-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu 15 eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai- zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instruktorea izan den idazkariak.

Behin behinekoz kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, komunikatuz kanporatze- espedientea ez-ohiko Batzar Nagusiari helaraziko zaiola, zeinak behin betiko kanporatzeko erabakia hartuko baitu hala badagokio. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide- eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Kanporatze-espedientea lehenengo ez-ohiko Batzar Nagusiari helaraziko zaio. Batzarrerako deialdia ez bada hiru hilabetetan egiten, gai horretarako bakarrik egin beharko da, Batzordearen erabakia berresteko edo errebokatzeke.

Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak inputatuak aurkeztutako idatziaren eta ekintzen berri zehatza Batzar Nagusiari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

36. artikulua.-**KANPORATZEA** Behin betiko kanporatze-erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

37. artikulua.-Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zehapena ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SOZINETATE ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. artikulua.- Elkaratearen SOZINETATE ONDAREA 296.735,93 eurokoa da.

39. artikulua.- Elkarateak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- Ondare-ekarpenak.
- Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- Elkaratearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta lege jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharreko zat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

ELKARTEAREN EKITALDIA ETA EKITALDI EKONOMIKOA urte betekoa izango da, eta urte

bakoitzeko abenduaren 31an itxiko da.

Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak ematea barne) elkarteak lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

40. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ez-ohiko Batzar Nagusian erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

41. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidenteak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Onartua izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak egiten den hurrengo batzorde nagusi ezohikoaren gai-zerrendan sartzea erabakiko da.

42. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Nagusiari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Nagusiak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

43. artikulua.- Elkarte honako kasuetan desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkarte desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.




44. artikulua.-Elkartea deseginez gero, horixe erabakitzen duen ez-ohiko Batzar Nagusiak Batzorde likidatzaile bat izendatuko du, 3 batzordekidez osatua eta hark hartuko ditu bere gain dauden funtsak.


Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, Euskal Kulturaren alde Durangaldean lanean dabilen irabazi-asmorik gabeko erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.



PRESIDENTEAREN SINADURA



IDAZKARIAREN SINADURA

